

ITSASUKO HERRITARREEI ESKERRAK

la-ia ez zarete ailegutzen! Baina azkenean zuen autobusa ikusi eta alaitu ginen. Alaitasunez, gogo askorekin eta, egia esanda, izugarrizko beroarekin hartu zintuztegun.

Herriko plazan ongietorri-hizak esan genizkizuen baita zuenak ere jaso. Elkarri opari batzuk egin genizkion: Etxauriko Udalak herriko zapia eman zizuen, horrela herriko jaietara etortzen zaretenean guretariko bat izango zarete; Etxauriko Bailarak gereziondo baten hostoa agertzen den oparitxoa, gure bailara eta zuen herria, nolnahi ere, irudikatzen duena.

Udaletxera joan ginen. Bertan Etxauribar Laenanez hamaiketako (hamabietako bihurtu zena) aparta prestatu zuen. Oso goxoa zegoen: relleñoarekin, bakailaoarekin eta gatzarekin... egindako pintxoak, Otazuko ardo onarekin. Lehenengo elkarrizketak hasi ziren, itxura ona ! Gainera, itsasuko musikariak izugarrizko animazioa jarri zuten.

Plazara joan ginen eta bertan makilari gazteez eta dantzarietz disfrutatu genuen. Bukatzeko eskainitako emanaldi bikainarekin, Etxauriko alkateari (niri-neuri) dantza bat eskaini zidaten. Gero, neska gehiago animatu ziren (mutilaren bat ere). Eta musikariek emanaldi osoa girotu zuten

Bazkaltzeko ordua ailegatu zen. Karpara heldu ... eta bete-beteta zegoen. Eseri ginen eta ardoa zela, sagardoa zela, zurrakapote zela eta potxak, jarraitu genuen denetik hitzegiten: euskera, umeak, eguraldia, gereziak inola ez!, lana, politika... Musikariek bazkaria girotu zuten eta dantzarietz ezpatadantza bat dantzatu zuten. ¡lkaragarria!

Bazkaldu ondoren, bingora jolastu ginen. Poztasuna eman nahi genion itasuko gazte bati, Guardia Civil-arekin elkartze bat izan zuena, ez oso otsegina, baina ezin. Berriozarko konpartsako kide bati , egun hori animatzen egon zena, tokatu zitzaion. Zorionak! Espero dugu laister berriro elkar ikustea. Eskerrik asko

Plazara joan ginen eta bertan pilota partidu bat bailarako gazteen artean (etorkizun oparoarekin!), ikusi genuen. Ondoren, partidu nagusia, bailarako bikotea (Xabi-Etxague) Itsasuko bikoearen aurka. (Mathieu-Pello). ¡Benetan zirraragarria!. Frontoi osoa beraiekin zegoen. Eta pilotarietz , uste dut asko disfrutatu zutela, luzatu baitzuten partidua 25 tanturaino.

Bien bitartean eta musikarekin, Itsasuko musikariek (¡hori bai pairamena!) Itasuko lagunak agurtzera joan ginen, joateko ordua zelako. Musika zegoenez eta behar bezalako agurra merezi zutelako, kate bat egin eta autobuseraino hurbildu ginen.

Muxu batzuk, besarkadak, esker onak... Agur eta laister arte, baina hurrengoan guri dagokigu bisitan joatea. Gero arte


Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko alkatea - Alcaldesa de Etxauri